



**Espedientearen kodea:** 2024ZZ020003

**Espedientearen gaia:** 2024an Oiartzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia.

**Dekretu zenbakia:** 2024/1823

## IRAGARKIA

Alkateak, 2024/11/28ko dataz, honako Ebazpena eman du:

“2024ko uztailaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2024an Oiartzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia. Dirulaguntza horiek emateko, kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 3.040,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0321.481.335.00.01 zenbakidun partidaren kontura.

Jasotako eskaerak Oiartzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko oinarrietan adierazitako puntuazio irizpideen arabera baloratu dira eta eskaera egin duen entitate bakoitzari dagokion dirulaguntza zehaztu da.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariaren txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

## ERABAKI DUT

Oiartzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak esleitzeko, guztira 3.040,00 euroko gastua onartzea eta beheko koadroaren arabera dirulaguntzak ematea eskaera egin duten entitatei.

| ERAKUNDEA                              | ERAKUNDEARI DAGOKION LAGUNTZA |
|----------------------------------------|-------------------------------|
| HERRI URRATS                           | 775,51                        |
| IBILALDIA                              | 217,14                        |
| ARABA EUSKARAZ                         | 310,20                        |
| NAFARROA OINEZ                         | 620,41                        |
| KILOMETROAK                            | 186,12                        |
| KOMUNIKAZIO BIZIAGOA SAL (Argia)       | 310,20                        |
| EUSKALTZALE EUSKALDUNON ELKARTEA (EHE) | 310,20                        |
| PAUSU MEDIA (Antxeta Irratia)          | 310,20                        |
|                                        |                               |
| GUZTIRA                                | 3040,00                       |



Ordainketa udal aurrekontuko 1 0321.481.335.00.01 2024 (A 1557/ 2024) diru atalera bideratuko da.”

Eta horren berri ematen dugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, iragarki hau udaleko taulan argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoen Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, iragarki hau udaleko taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorritik, eta interesatuaren eskubideak babesteko egoki irizten diren egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKU3a89f5b8-08cc-4441-a398-62a4173d9668

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

| Sinaduren laburpena / Resumen de firmas |                                                             |
|-----------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| Titulua / Título:                       | 2024ZZ020003-Iragarkia/Iragarkia (NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA) |